

[Eusk/Cast] Foro Social, también educador de la política del capital (III)

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 07/02/2021

El mes pasado escribíamos sobre el Foro Social vasco. Hoy hemos sabido que el “Foro social de Bilbao” condena los recibimientos a las y las ex “personas presas” vascas

Foro Soziala, kapitalaren politikaren hezitzailea ere (III)

Joan den hilean Euskal Foro Sozialari buruz idatzi genuen. Gaur, “Bilboko Gizarte Foroak” euskal preso ohien harrera egitea gaitzesten duela jakin dugu. Hori guztia “bakearen” eta “bizikidetzaren” alde. Kapitalaren eta haren aliatu taktiko eta estrategikoen ezinbesteko tresna dela esaten jarraitzen dugu. Diskurtsoa garatzen ari diren heinean, frantses eta espainiarraren demokrazia kapitalistaren filosofia eta balioen hezitzaile gisa duen funtzioa agerian geratzen da.

Euskal gizartean birgizarteratu behar diren presoez hitz egiten dutenean, kapitalaren, sistemaren eta burgesiaren izenean ari dira. Foro Soziala Euskal Herri Sozialista baten alde borrokatu zirenen errenuntzia eta Estatuarekiko menpekotasuna janzteko ardura dutenen artean dago. Jakina, Euskal Iraultza Sozialistaren alde borrokatzen jarraitu nahi dutenentzat, kapitalaren eta burgesiaren balioak saltzen jarraituko dute. Egia esan, errepresioaren benetako sostenguak dira, beste batzuekin batera.

Horretarako, bakeaz, integrazioaz, bizikidetzaz, aniztasunaz eta abarrez hitz egiten dute. Ziur gaude guztiek dutela nahikoa bizitzeko eta defendatzen duten sistemarekin gustura egoteko. Horrela ez bada, euskal langile-klasea eta herri sektoreak okupatu eta ustiatzen duenaren diskurtsoa elikatzea ulertzea ezinezkoa da. Halako kontzientziaz ez dago proletariorik (ez hemen, ez inon), erreprimitzen, okupatzen eta ustiatzen duena defendatzen duenik.

Okupatzen gaituzten demokrazia kapitalisten arauetara jarraitzera animatzen gaituzten bitartean, klase-borroka eta euskal langile-klasearen biziraupenerako borroka, bere bi alderdietan, nazionala eta klasekoa ezkututzen dituzte. Horretarako, errealitate politiko eta soziala ezkututzen dute, diskurtsorik atzerakoienari eutsiz. Gaur egun, diskurtso horren atzetik sistemari atxikitako edozein alderdi, sindikatu, erakunde edo beste daude. Horietako inork ezin ditu sistemaren arauak urratu, bere egoera pertsonala, edo taldekakoa/kolektibokoa, errepresiotik libre geratu gabe.

Euskal Herria eta bertako langile-nazioa dira lehen subjektu erreprimitua. Hori esanda, gaur egun beste adibide batzuk soberan daude. Euskal Herri barruan eta kanpoan. Kasu batzuk aipatuko ditugu: Polizien jarduna kaleratzeen aurrean manifestatzeagatik... (Barakaldo...), iritzi-“delitu”-engatik (Pablo Hasel, Katalunian), okupazioa zalantzan jartzen duen aldarrikapen txikiena dela eta Euskal Herrian..., faszismoaren aurrean agertzeagatik (hainbat eta hainbat lekutan), gaztea izateagatik oldartuak ... (Donostian eta beste euskal herri askotan gertatzen den bezala), Euskal Herriko hegoaldearen eta iparraldearen arteko

itxitura... Poliziaren jarduera politiko horrek guztiak
kondena/errepresioa/zaurituak/isunak/sufrimendua eta abar dakartza.

Denbora gutxian, kapitalak, burgesia txiki eta ertainak eta sozialdemokraziak Estatu espainiarreko erreforma demokratikoaren urteetara (1978) eraman gaituzte. Sozialdemokraziak 78ko erregimenera itzultzea salatzen duen bitartean, bere praxirik kualifikatu eta ikusgarrienean garatzen du. Klase eta nazio ekintza eta dinamikarik eza, jarduera kolaborazionistarekin (aurrekontuak, Espainiako Estatuko Errege Dekretua...) osatzen dute.

Ez da gure gustukoa iritzi/salaketaren bat egin dugun kontuetara itzultzea. Aldi berean, kapitalak, bere aliatuek eta laguntzaileek beren praxia indarrean mantentzen duten bitartean, gure gogoetak ere aurkituko dituztela adierazten dugu.

Amnistia Osoa

Independentzia eta Sozialismoaren alde

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua - 2021-02-07

[Castellano]

Foro Social, también educador de la política del capital (III)

El mes pasado escribíamos sobre el Foro Social vasco. Hoy hemos sabido que el “Foro social de Bilbao” condena los recibimientos a las y las ex “personas presas” vascas. Todo ello en favor de la “paz” y la “convivencia”. Seguimos manteniendo que es un instrumento imprescindible del capital y sus aliados tácticos y estratégicos. Según van desarrollando su discurso, queda en evidencia su papel de educadores de la filosofía y valores de la democracia capitalista francesa y española.

Cuando hablan de personas presas que deben reinserirse en la sociedad vasca, están hablando en nombre del capital, de su sistema y de la burguesía. El Foro Social forma parte de los encargados de vestir la rendición y la sumisión al Estado del capital de los que lucharon por una Euskal Herria socialista. Lógicamente seguirán vendiendo los valores del capital y de la burguesía para los que osen continuar peleando de una u otra manera por la Revolución Socialista Vasca. En realidad, junto con otras y otros son verdaderos soportes de la represión.

Para ello hablan de paz, integración, convivencia, diversidad, etc. Estamos seguros que todos ellos y ellas tienen lo suficiente para vivir y estar agradecidas al sistema que defienden. Si no es así, es imposible de entender que alimenten el discurso de quien ocupa y oprime a la clase trabajadora y resto de capas populares vascas. No hay proletario (ni vasco ni de ningún lugar), con conciencia de tal, que defienda a quien le reprime, ocupa y explota.

A la vez que nos animan a seguir las reglas de las democracias capitalistas que nos ocupan,

ocultan la lucha de clases y la lucha por la supervivencia de la clase obrera vasca en sus dos vertientes, nacional y de clase. Para ello ocultan la realidad política y social manteniendo el discurso más retrógrado. Hoy en día, este discurso es seguido por cualquier partido, sindicato, organismo u otros adscritos al sistema. Nadie de todos ellos puede saltarse las normas del sistema sin que su situación personal o grupal/colectiva quede exenta de la represión.

Euskal Herria y su nación obrera vasca son los primeros sujetos reprimidos. Dicho esto, hoy en día sobran otros ejemplos. Dentro y fuera de Euskal Herria. Mencionaremos algunos casos: Actuación de las diferentes policías por manifestarse ante los despidos... (Barakaldo...), por “delitos” de opinión (Hasel en Catalunya), por la menor reivindicación que cuestione la ocupación en Euskal Herria..., por manifestarse ante el fascismo (en tantos y tantos lugares), atacados por ser jóvenes... (como ocurre en Donostia y otras muchas localidades vascas), el cierre entre el sur y norte de Euskal Herria... Toda esta actuación político-policia traa sus consiguientes condenas, represión, heridos, multas, sufrimiento, etc.

En poco tiempo, el capital, la pequeña y mediana burguesía y la socialdemocracia nos han hecho retroceder a los años de la reforma democrática en el Estado español (1978). A la vez que la socialdemocracia denuncia una vuelta al régimen del 78, la desarrolla en su praxis más cualificada y visible. La falta de acciones y dinámicas nacionales vascas y de clase las complementan con su actividad institucional colaboracionista.

No es de nuestro gusto volver a cuestiones de las que, de alguna manera, hemos opinado/denunciado. A su vez, entendemos que mientras el capital, sus aliados y colaboradores mantengan su praxis en vigor encontrarán también nuestras reflexiones.

Amnistía Total

Por la Independencia y el Socialismo.

Movimiento Por la Amnistía y Contra la Represión - 07-02-2021

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-foro-social-tambien>